

Gazte agente moreak. Lehenengo sentsibilizazio saioa

00.00.00-10 aurkezpen rondatxoa. Eramanten ditugu betaurreko more batzuk (goma eva morez eginda)EDO morea den margo bat eta joaten dira jartzen edo margozten eta esaten haien izena eta beraien egunekotasunean edo ezagutzen dituzten indarkeri matxistak eta sexismoa. Nirekin bukatzen dugu rondatxoa eta proiektua azaltzen dugu.

00.15-00.30 Talde honen helburuak esaten ditugu edo idazten ditugu.

Gazte agente moreen helburua:

Eskolan, **Gazte agente behatzaileak eta eraldatzaileak izatea** izango da helburu orokorra eta horretarako helburu espezifiko ezberdinak izango dituzte;

1. inguratzen dieten errealitatearekiko agente kritikoak izan.
2. Sexismoa eta indarkeri matxista sustatzen duen ezaugarriak behatu eta hauei buruz hausnartu.
3. Hezkidetzan oinarritutako praktika indibidual eta kolektiboak garatu.
4. Komunitatean, hezkidetzak ekintza konkrituak proposatu eta komunitate osoa hauetan parte hartzea.

Idearen helburuak guk esan eta denon artean adostu ditugu. Beste helburu bat lortu nahi dute?

00.30-00.40 Behatuko dutena azaldu. gaiak planteatu eta gero, haiek, taldeka lehenengo dakitenarekin lehenengo behaketa bat egin. Taldeka jarriko gara eta lehenik esandakoarekin, gauzak idatziko dituzte. (Denbora ikusiko dugu eta denbora badugu, taldeka jarriko gara eta hausnarketa egingo dute, denbora aldetik, larri bagabiltza, denak joango dira ideiak botatzen eta dinamizatzailea apuntatzen joango da)

Espazioak eta guneak:

Hizkuntza eta irudiak (materialak):

Erlazioak:

00.40-00.50 Antolakuntza eta metodologia: nola emango diogu jarraipena adostuko dugu. Talde bakotzeko Behaketa fitxa azaldu, agente moreak egingo dutena ikustarazi eta bigarren eta hirugarren faseak azaldu. Taldeak egin:

1. Hizkuntza eta irudien behatzaileak:

Talde hauei lortu ahal dituzte helburuak:

- ☉ Hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabiltzeko beharra eta material pedagogiko ezberdinak analizatu eta praktikan jarri.

- ⊙ Hezkuntzan parte hartzen duten agente ezberdinen hizkuntza analizatu eta eraldaketak proposatu.
- ⊙ Ikastetxean dauden material sexistak ekiditu, eta hezkidetzan oinarritutakoa erabili.
- ⊙ Irudietan eta hizkuntzan barneratuta dagoen rol eta estereotipo sexiste aurre egin.
- ⊙ Emakumeen historian zehar egindako ekarpenak analizatu, hausnartu eta balioan jarri.
- ⊙ Emakumeen irudi kanonarekin kritikoak izan eta emakume errealak eta anitzak dituzten irudiak eta irakurmenak sustatu.
- ⊙ Hizkuntzak eta irudiak barneratuta daukaten androcentrismoari aurre egin

Talde hau behatu dezakeena:

- Erabilitako hizkuntza haien artean sexistak bada ala inklusiboak da.
- Rolak eta estereotipoak jarraitzen duen hizkuntza bada: enfermera vs Medico adibidez.
- Liburuetan, ipuinetan zelako lanekin, empleguekin, kirolekin, aisialdiarekin... lotzen dituzten neskek eta zelakoekin mutilak
- Irudiak: zenbat emakume eta zenbat mutila agertzen dira testu liburuetan eta ipuinetan eta zer egiten dute....
- Eta abar....

2. Haien arteko erlazioak eta rolak analizatuko duen taldea:

Talde hau lortu ahal duten helburuak:

- ⊙ Zaintzak erdigunean jarri eta denon arteko zaitza onak izateko esku hartzea garatu.
- ⊙ Emakumeak, historian zehar egindako lan inbizibilizatuak erakutsi eta balioan jarri.
- ⊙ Bakoitzak bere buruari eta besteoi zaintzeko gozamina sustatu.
- ⊙ Pertsona bakoitzaren izaera eta gorputzen aniztasuna balioan jarri.
- ⊙ Gatazken ebazpen positiborako dinamikak eta esku hartzeak garatu.
- ⊙ Bakoitzak nahi dituen limiteak landu
- ⊙ Hezkidetzan oinarritutako erlazioak sustatu: aniztasuna eta desberdintasunetik, berdintasuna sustatu:

Talde hau behatu dezakeena:

- Neskek izategatik edo mutilak izategatik ezberdin tratatu
- Bere rol femenino eta maskulinoari uko egiten duten pertsonak, nola tratatzen dira?
- Lehiakortasuneko, edo kooperaziozko erlazioak ditugu.
- Nortzuk egiten dituzten zaintzak ikusi: galdetu zelan gauden, zeozer gertatzen bazaigu laguntza eman....

- Limiteak errespetzen badira ala ez...
- Indetitate sexualak lantzen badira eta zer gertatzen da hauekin
- Bakoitzak dituen gustuak errepetatzen badira ala ez
- Denon artean zaintzen bagara ala bakarrik pertsona batzuk zaintzen dute. Nola dira zaintzen duten pertsona horiek
- Gorputz anistasuna errepetatzen bada ala ez eta zer gertatzen da.
- Emakumeenganako indarkeri kontrako sentsibilizazioa nolakoa da. Zien da gazteen pertzepzioa, ikuspuntua.
- Eta abar

3. Espazioaren kudeaketaren taldea:

Talde hau lortu ahal dituen helburuak:

- Hezkuntza agente ezberdinen artean, hezkidetzan oinaturako esparru anitza ezbedinak disenatu eta kudeatu.
- Kirol eta joku maskulino hegemonikoak erdigunean ez garatu eta hauek, anistasuna eta kooperazioan oinarritutako kirol eta jokuekin aldatu.
- Neskak, izkinetan ez egoteko esku hartzea izan, ahalduntze prozesuak garatuz eta erdiguneko espazioak okupatuz.
- Espazioak, pertsona guztien interes eta beharrei erantzuteko guneak izan

Talde hau behatu dezakeena:

- Zeintzuk dira neskak okupatzen dituzten guneak patioan
- Zeintzuk dira mutilak okupatzen dituzten guneak
- Zer da gehien bat egiten dena patioan: analizatu jokuak, jolasak....eta nortzuk egiten dituzten
- Zeintzuk dira ia- ia egiten ez diren jolaz eta jokuak. Nortzuk egin dituzten historian zehar? Zergatik ez dira lantzen?
- Eta abar

00.50-00-55 Gune segurua eraiki. Denon artean, proiektua aurrera eramatzeko zer behar duten eta zelakoa izan behar den talde hau esan. Zelako ingredienteak eduki behar ditu? Eta hauek katulina batean idatzi eta gero guztiak sinatu.

